

Pasaiako Portuko zerbitzugunearen Antolaketa Plan Bereziaren hasierako onarpena eta hura jendaurrean jartzea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak hasierako onarpena eman zion, 2008ko otsailaren 19an, Pasaiako Portuko zerbitzugunearen Antolaketa Plan Bereziari. Dokumentua LKS Ingenieria enpresak idatzi zuen 2003ko azaroan, eta Pasaiako Portu Agintaritzak aurkeztu du.

Halaber, erabaki da hasiera batean onartutako plana jendaurrean jartzea, dagokion ingurumen eraginaren ebaluazioarekin batera, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren bi hilabeteko epean nahi duten pertsona eta entitate guztiek egoki irizten dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Horretarako, aipatutako epean onartutako dokumentua jendearen eskura egongo da osorik, <http://b5m.gipuzkoa.net/pppb/> URL helbidean eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Lurralde Plangintzako Zerbitzuaren bulegoetan (Julio Caro Baroja plaza 2-3.a, Donostia).

Donostia, 2008ko martxoaren ...